

Pauso bat aurrera

Pausoa; mugimendua sortzen duena.

Auzoko herritarrek euskaraz bizitzea erabaki dute, lehen, bigarren eta azken hitza euskaraz eginez. Astebetez euskarari eusten hasteak, urtetarako arrastoa utziko du. Mugimendua sortzen da, ehunka herritarren erabaki eta ekintzek milaka lagunentzako hizkuntza ohituretan eragina dutenean.

Urratsa; bakoitzak dagoen lekutik ematen duena; norberarena, propioa.

Marisol eta Enriquek euskaltegian izena eman dute, euskara ikasten hasi dira.
Anak bere bilobarekin hitz egiteko euskara ulertu behar duela erabaki du.
Michelle eta Nerea mintzalagun taldean herriko euskaldunen sarea zabaltzen ari dira.
Lutxok hilabetez euskara hutsean bizitzea erabaki du.

Pausoa; kontzienteki egiten dena, norabide batean egiten dena.

Elkarte gastronomikoko batzarrak euskaraz egiten dira orain.
Udalak euskara lan hizkuntza eta herritarrekiko lehenetsutako komunikazio hizkuntza izango dela erabaki du.

Urratsa; taldean edo bakarka egin daitekeen ibilaldi baten hasiera.

Auzoko harategian euskaraz irakurri daitezke errotoak eta produktuen izenak, euskaraz egin ahal izango dira erosketak, harakina ulermena lantzen ari da.
Herriko kirol taldeek euskaraz egingo dituzte entrenamenduak; prestatzaileak euskarazko saioak zuzentzeko gertu daude.

Pausoa; handia edo txikia, baina sendoa, atzera bueltarik ez duena.

Kevinek lagun euskaldun guztiei esan die berari euskaraz hitz egiteko, ulertzeko gai dela eta entzunez gehiago ikasi nahi duela.
Gaizkak prentsaurreko guztiak hasten ditu euskaraz.
Lorea herriko euskaltzaleen elkartera hurbildu da, euskaraz bizitzeko duen ideia bat martxan jartzera.

Pauso bat aurrera emateko garaia da; zuk, nik, hark, haiek, guk euskaraz bizitzeko urratsak ematekoa.

Pauso bat, bi, hiru,... milaka urrats emateko ordua da; euskaraz bizi nahi dugunok, euskaraz jakin ez arren gizarte euskaldunago bat desio dutenek, agintariak, herriko elkarteak, ikasle, enpresari, sindikalista eta langileak; bakoitzak bere lekutik, euskararen herria edukiz betetzeko ekarpena egiteko ordua.

Euskarak 365 egun ditu, euskaldunok urte osoa pauso berriak emateko.

Un pas en avant

Un pas ; qui crée du mouvement.

Les habitants du quartier ont décidé de vivre en basque, en utilisant le premier, le deuxième et le dernier mot en euskara. Le fait de parler basque pendant une semaine peut laisser une trace durant des années. On crée une inertie, lorsque les décisions et les actions de centaines de personnes influencent les habitudes linguistiques de milliers de gens.

Une étape ; franchie par chacune et chacun, depuis son propre espace et sa propre réalité.

Marisol et Henri se sont inscrits à l'euskaltegi pour apprendre le basque.
Ana a décidé de comprendre la langue basque pour que sa petite fille puisse la pratiquer.
Michèle et Nerea étendent le réseau des bascophones en étant tutrices à mintzalagun, groupes de paroles participatifs pour s'entraîner à parler régulièrement en basque.
Lutxo a décidé de ne vivre qu'en euskara durant un mois.

Un pas ; effectué consciemment, vers une direction conciliée et collective.

Les réunions de l'association gastronomique s'effectuent désormais en basque.
La mairie a décidé que l'euskara sera la langue principale de travail, et de communication envers ses habitants.

Un cap ; le début d'une aventure possible individuellement ou collectivement.

Dans la boucherie du coin, on peut désormais lire la signalétique en basque, y faire ses courses en euskara, le boucher travaille sa compréhension de la langue.
Les clubs de sport de la commune effectueront les entraînements en euskara ; les entraîneurs sont préparés à diriger les séances en basque.

Pausoa; grand ou petit, mais serein, qui n'implique pas de retour en arrière.

Kevin a réclamé à tous ses amis de lui parler en basque : étant apte à la comprendre, il souhaite apprendre d'avantage en l'écoutant.
Gaizka débute toutes ses conférences de presse en euskara.
Lorea s'est aventurée au sein de l'association culturelle de sa commune, afin de proposer une idée pour vivre en basque.

Pauso bat aurrera: il est temps d'effectuer un pas en avant ; toi, moi, elle, eux, nous, franchissons l'étape de vivre en euskara.

Un pas, puis deux, trois... il est l'heure de se lancer ; celles et ceux qui souhaitent vivre en basque, celles et ceux qui ne parlent pas la langue, mais souhaitent sa présence active dans la société ; élu(e)s, associations, étudiant(e)s, entrepreneur(e)s, syndicalistes, salarié(e)s... Chacun, chacune peut, à partir de sa réalité, construire le pays de l'euskara.

L'euskara a 365 jours, nous avons toute l'année pour franchir un nouveau cap.